

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5201

AGINDUA, 2022ko azaroaren 3koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación del Cambio Climático de Gipuzkoa izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.

2022ko abuztuaren 4an eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación del Cambio Climático de Gipuzkoa izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko.

Eskabidearekin batera espedientean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Fundazioaren patronatuak 2019ko urriaren 22an erabaki zuen estatutuen aldaketa. Era berean, fundazioaren estatutuen 35.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, estatutuak aldatzeko erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu zuen, Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez. Diputatuen Kontseiluak 2020ko martxoaren 3an hartu zuen estatutuen aldaketa onartzeko erabakia.

Erabaki horiek eskritura publikoan gauzatu ziren, Donostian, 2022ko uztailaren 27an, Fermín Lizarazu Aramayo notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 2796).

Erabaki horien bidez, fundazioaren estatutuen 8. artikulua aldatzen da, fundazioaren patronatuaren osaera den bezainbatean. Zehazki, patronatuko hautapenezko kideak lau izatetik sei izatera igaro dira.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebatzea, hauekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak.

2022ko azaroaren 29a, asteartea

Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación del Cambio Climático de Gipuzkoa izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, Agindu honen datarekin, Fermín Lizarazu Aramayo notario jaunaren aurrean 2022ko uztailaren 27an egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 2796).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiokete Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 3a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.